

### PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ERREPROGRAFIKO AKABERA-LANAK	Iraupena	70
Kodea	MF1324_1		
Lanbide-arloa	ARTE GRAFIKOAK		
Lanbide-eremua	Inprimaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Erreprografia	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Erreproduktzioa erreprografia-ekipoetan.	Iraupena	80
	Erreprografiako lanak jasotzea eta zerbitzatzea		70
	Lanekoak ez diren lanbide-jardunbideen modulua erreprografian.		80

#### A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1324\_1: ERREPROGRAFIKO AKABERA-LANAK EGITEA.

#### B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Koadernaketa funtzionalerako, eskuzkorako edo automatikorako erabiltzen diren material eta ekipo nagusiak eta erreprografiako akaberak erlazionatzea beren ezaugarrien eta funtzionalitatearen arabera.

EI1.1 Erreprografiako koadernaketa-lanetan erabiltzen diren makina, erreminta eta tresna ohikoenak identifikatzea beren egitura eta funtzionaltasunaren arabera.

EI1.2 Erreprografiako akabera-lanetan erabiltzen diren makina, erreminta eta tresna ohikoenak identifikatzea beren egitura eta funtzionaltasunaren arabera.

EI1.3 Tapetarako eta kontratapetarako erabiltzen diren material ohikoenak identifikatzea, eta haien funtzioa eta erabilgarritasuna zehaztea.

EI1.4 Ixteko eta bizkarrerako elementu fisikoak identifikatzea, hala nola koadernatzaileak, torlojuak, uztaiak..., beren formen, moten eta kalitateen arabera.

EI1.5 Erreprografiako produktuei akabera ematean eta haiek manipulatzeko erabiltzen diren material ohikoenak deskribatzea, besteak beste, papera, kartoia, plastikoa, grapak, itxigailuak, bizkarrak...

EI1.6 Koadernaketa funtzionalerako ekipoen eta erreprografiako akaberen maniobra-gailu bereizgarrienak deskribatzea.

EI1.7 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, eta lan-agindu jakin batekin:

- Lortu beharreko produktua erabili beharreko materialekin eta akabera-motarekin erlazionatzea.
- Material egokiak hautatzea beren tamainari, gramajeari, ehundurari, koloreari eta abarri dagokienez, eta produktuari akabera emateko ekipo egokiak hautatzea.

A2: Erreprografiako koadernaketa mekanikoa edo funtzionala egitea kasu bakoitzean egokienak diren materialak eta bitartekoak erabiliz.

EI2.1 Erreprografian erabiltzen diren koadernaketa mekaniko edo funtzional ohikoenak deskribatzea.

Koadernaketa-motak (uztaiekikoa, torlojuetikikoa, aletxetikikoa, espiral bidezkoa, kiribil bidezkoa, wire-o, bizkarrarekikoa) koadernaketa egiteko behar diren tresnekin eta makinekin erlazionatzea.

EI2.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, koadernaketa mekanikoari edo funtzionalari buruzkoetan:

- Kasu bakoitzerako egokiena den koadernaketa-mota hautatzea: tutuxoa, espirala, wire-o, uztaiak, fastener-a eta abar.
- Koadernaketa-mota bakoitzerako materialak eta ekipoak hautatzea eta prestatzea, jasotako argibideei jarraikiz.
- Koadernaketa egitea, eta produktu bukatuaren kalitatea egiaztatzea.
- Makinetan segurtasun-neurriak (gelditze-botoiak, karkasak, immobilizatzaileak, zelula fotoelektrikoak eta bestelako elementuak) daudela eta ondo funtzionatzen dutela egiaztatzea.

EI2.4 Erreprografiako koadernaketako kasu praktikoetan, makina ohikoenekin (hala nola altxatzeko makinekin, fresatzeko makinarekin...) maniobrak egitea.

A3: Erreprografiako akabera-lanak egitea kasu bakoitzean egokienak diren materialak eta bitartekoak erabiliz.

EI3.1 Erreprografian erabiltzen diren akabera-mota ohikoenak deskribatzea.

EI3.2 Akabera-motak (tolestea, arrailtzea, zulatzea, daratuz zulatzea, plastifikatzea, laminatzea...) akabera emateko behar diren tresnekin eta makinekin erlazionatzea.

EI3.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, hainbat produktu ebakitzeari buruzkoetan:

- Ebakitze-kopurua optimizatzea ebakitzeak planifikatuz.
- Gillotinaren elementuak doitztea, eta segurtasun-sistemen funtzionamendua egiaztatzea.
- Euskarria ebakitzea, eta emaitza egiaztatzea.

EI3.4 Akabera-makina jakinetan tratatu beharreko euskarriari eragiten dioten elementu aldagarriak desmuntatzea eta muntatzea, besteak beste, arrail-orraziak, zulatzea, daratuluz zulatzea...

EI3.5 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, hainbat akabera eta manipulaziori buruzkoetan, lan hauek egitea: tolestea, arrailtzea, zulatzea, daratuluz zulatzea, laminatzea..., eta emaitzak ezarritako argibideekin bat datozela ziurtatzea.

EI3.6 Erreprografiako akaberen kasu praktikoetan, makina ohikoekin maniobrak egitea, adibidez, altxatzeko makinekin, arrailtzeko makinekin, laminatzeko makinekin, grapagailuekin, plastifikagailuekin, tolesteko makinekin...

A4: Akabera-prozesuetan parte hartzen duten makinak erabiltzeak dituen arriskuak identifikatzea.

EI4.1 Akaberen prozesuetan erabiltzen diren materialak, produktuak, erremintak eta ekipoak manipulatzeko dakartzen arriskuak eta arrisku-mailak identifikatzea.

EI4.2 Makina bakoitzaren segurtasun-elementuak eta eragiketetan erabili beharreko ekoizpen-bitartekoak eta jantziak deskribatzea.

EI4.3 Makinen segurtasun-elementu gisa funtzionatzen duten eta makina segurtasunez erabiltzea ahalbidetzen duten maniobra-gailuak eta botoiak identifikatzea.

EI4.4 Erreprografiako akabera-prozesuan makinak eta erremintak erabiltzeak eragin ditzakeen arrisku-egoerak ezagutzea.

EI4.5 Akabera-makinak eta -ekipoak prestatzeko, erabiltzeko eta mantentzeko behar diren segurtasun-baldintzak deskribatzea.

EI4.6 Hartu behar diren segurtasun-neurriak, arriskuak prebenitzeko neurriak eta ingurumena babesteko neurriak identifikatzea, eragiketa bakoitzari aplikatu behar zaizkion berariazko arauak eta argibideei jarraikiz.

## **Edukiak**

### **1. Koadernaketarako eta erreprografiako akaberetarako materialak eta tresnak erabiltzea**

- Materialak: papera, kartoia, plastikoak, grapak, torlojuak, uztaiak, kolak...
- Tresnak eta erremintak: bihurkinak, ebakitzaileak, prezintuak, pintzelak...

### **2. Erreprografiako koadernaketa mekanikoaren edo funtzionalaren prozesua**

- Hainbat koadernaketa-motaren ezaugarriak eta aplikazioak: tututxoa, espirala, wire-o, uztaiak, fastener-a eta abar.
- Hainbat koadernaketa-ekipo deskribatzea.
- Koadernaketa-ekipoak doitzea.
- Koadernaketarako argibide teknikoak.
- Koadernaketa-ekipoen lehen mailako mantentze-lanak.

### **3. Erreprografiako akabera-prozesua**

- Hainbat akabera-motaren ezaugarriak eta aplikazioak: formateatzea edo ebakitzea, tolestea, arrailtzea, zulatzea, daratuluz zulatzea, plastifikatzea, laminatzea...
- Akabera-lanetarako argibideak.
- Krokisak eta ereduak ulertzea.
- Akabera-ekipoak: tolesteko makina, arrailtzeko makina, zulagailua, daratuluz zulatzeako makina, plastifikagailua, laminatzeko makina...
- Ebakitzeko ekipoak eta gailuak: zizailak eta gillotinak.
- Akabera-prozesuak. Kalitatearen kontrola.

### **4. Erreprografiako akaberei aplikatutako segurtasun- eta osasun-arauak eta ingurumena babestekoak**

- Segurtasunezko lanaren prozedurak erreprografiako akaberetan.
- Norbere babeserako ekipoak.
- Makinen segurtasun-gailuak: gelditze-botoiak, karkasak...

## **C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Erreprografia.